Iñaki Madison

Haizearen Ahotsean

AHALEGINAREN KULTURA

Gimnasioaren kulturak inoiz ez bezalako gorakada izaten ari da, batez ere ahalegin fisikoarekin duten harremana berrasmatzen ari diren gazteen artean.
Mugimendu hau, nahiz eta lagun piloa bildu dauen zaletasun legez oraindik barria izan, gizarte-errealitate inportante legez errotu da gure artean. Sareetako eragileek be izan dabe horretan zerikusia: ustezko aditu horreek, «like» eta jarraitzaile gutxi batzuen truke aholkuak banatzen dituztenak, eta beren gorputzaren jabe izateko nahiz aurrera egiteko akuilua aurkitzeko gero eta gogo biziagoak bultzatuta. Gazte askorentzat —eta hain gazte ez diran beste horrenbestentzat—, ariketa egitea ez da jarduera fisiko hutsa: bizimoduko arlo guztietara zabaltzen dan estilo oso bat baizik, eguneroko azken bazterreraino, jaten dabenetik hasi eta besteekiko harremanetaraino. Orekaz jaten dabe, garaiz oheratzen dira, alkoholik ez dabe edaten edo batere ez, eta astean hiru-bost aldiz joaten dira entrenatzera, gimnasioko kideekin berbetan jarduten duten bitartean, nork pisu handiagoa altxatu edo errepikapen gehiago egin eztabaidatuz.

Halaxe, beren mundu txikietan ixten doaz, ahalegin fisikoa lokarri nagusi daben ghetto modukoak sortuz. Kezkaz begiratzen diot dena bereganatzen dauen grina honi, gazteok beren ingurunetik bakartuta uzten dituelako batzuetan. Badirudi elikadura eta entrenamendua ardatz dituen bizimodua dutela babesleku bakarra, gero eta arrotzagoa eta erradikalagoa egiten jakun mundu honetan elkarrekin bizitzen jarraitzeko. Edo nire adinagaitik, edo beste errealitate batean bizi naizelako, edo, besterik gabe, irakurtzearen eta gimnasiora joatearen artean aukeratzera emanez gero, liburu on baten orrietan murgiltzea, hitzaldi-solasaldi eder batera joatea edo zineman esertzea nahiago dudalako...
Dena dela, sinetsi nahi dut gure herri eta hirietako gimnasioak betetzen dituzten gazte zoragarri horiek noizbait ulertuko dutela askotariko ahaleginak beharko ditugula gaur daukagun bizimodu pribilegiatuari eusteko. Askotariko motibazioak be beharko ditugu, lanera joateari eta gizartean parte hartzaile aktibo izaten saiatzeari gimnasiora joateari adinako garrantzia emateko, haren maila berean den-dena emanez; hori bai, neurria galduta ibili barik, munduan esker txarreko jenderik ez da falta eta.

